

‘Josevisky’, protagonista del Rincón de la Ilustración

La casa de cultura de Aiete ofrece una muestra del trabajo del autor de ‘Ni ez naiz Mikel Laboa’

DONOSTIA — Joseba Larratxe (Irun, 1985), conocido artísticamente como *Josevisky*, exhibirá desde mañana hasta el 6 de septiembre en El Rincón de la Ilustración, en la casa de cultura de Aiete de Donostia.


Larratxe estudió arquitectura pero nunca ha trabajado como tal en el sector. Desde 2006 ha creado tiras cómicas e ilustraciones para varios periódicos, revistas y medios, como *Berria*, *Xabiroi*, *Gaztezulo* o *Argia*, según informó Donostia Kultura.

Ha trabajado en la creación de cómics con diferentes guionistas y publicó con Yurre Ugarte la obra *Katu hegoduna* en 2013. En 2017, con guion de Ángel Rekalde, el cómic *Eneko Aritza, lehen errege baskoia* y en 2019, con guion de Yurre Ugarte, publicó la novela gráfica *Joana Maiz*.

En 2020 publicó *Basolatik berri onik ez*, un relato fantástico sobre la fábrica de armas de Orbaizeta, con Asisko Urmeneeta. Finalmente, en 2022 creó el cómic *Ni ez naiz Mikel Laboa* junto a Harkaitz Cano y Unai Iturriaga, con el que ganó el Premio Euskadi de Literatura en 2023 en la categoría de Ilustración. — E.P.

Juanjo Mena suma un concierto a su despedida

DONOSTIA — Tras varios meses afrontando el alzhéimer, el director de orquesta Juanjo Mena (Gasteiz, 1965) anunció en marzo que ponía fin a su actividad profesional. “Siento que ha llegado ya la hora de la despedida”, escribió el músico vasco en un emotivo comunicado. “Los conciertos de este año serán, si no hay contratiempos, los últimos que dirigiré desde el podio”. Y uno de esos conciertos será, tras pasar por la Quincena Musical donostiarra y L’Auditori de Barcelona, el que ofrecerá el 15 y 16 de octubre junto a la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS), donde fue titular de 1999 a 2008. No estaba anunciado previamente por Mena, pero se ha convertido en uno de los más especiales de la nueva temporada 2026/2027 de la formación, presentada ayer en la capital vecina. — M.R.



Ramon Saizarbitoria eta Joxean Muñoz, atzo, ‘Ene Jesus’-en edizio berriaren aurkezpenean.

‘Ene Jesus’: Saizarbitoriaren lanik “zailena” berreskuratu dute

Ereinek eleberraren edizio berritua eta lagun duen liburu ilustratua argitaratu ditu

✦ Harri X. Fernández
✦ Javi Colmenero

DONOSTIA — Ramon Saizarbitoriaren *Ene Jesus* eleberrari konplexua da, kriptikoa, itxura formal apartekoa. Horregatik guztiagatik eleberrari atipikoa da egile donostiarraren bibliografian, eta ia bi hamarkadako mututasuna eragin zion soziologo donostiarrari. Eta isilaldi horrek, akaso, nolabaiteko madarikazioa ekarriko zion liburuari. Kritikaren Sari Nazionala lortu arren. “Kasualitate jakin nuen, ibiltari baten komentarioagatik”, esan zuen Saizarbitoria atzo, Donostian egin den edizio berriaren aurkezpenean.

Saizarbitoriaren hirugarren eleberria izan zen *Ene Jesus*, eta 1976an argitaratu zen, zentsurak bi urte aurretik edizio bahu ondoren *Ehun metro* liburu-dendetara iritsi zen urte berean. Denboran biak batera kaleratu arren, bi lan horiek oso harrera ezberdina izan zuten, eta *Ehun metro* izan zen entzutetsuena.

*Ene Jesus*en argitalpenaren 50. urteurrenean, edizio “berritua” argitaratu du Ereinek, eta jatorrizko testua egilearen bi lagunek

berrikusi dute, Ramon Etxezarretak eta Josu Zabaletak. Berrargitalpen hori historiako hirugarrena da jada, eta atzo aurkeztu dute Donostiako Santa Teresa komentuan egileak, Inazio Mujika Iraola Ereinek editoreak eta Joxean Muñozek, Saizarbitoriaren osagarri den *Ene Jesus*: irudiz irakurria liburu ilustratuaren arduradunak. Nahi izanez gero biak batera eros daitezke pack batean eta, bestela, eleberria bakarrik.

“Eleberrari bitxia da, *beckettiarra* eta guztiz modernoa, horrela izan da kalifikatua *Ene Jesus*”, esan zuen Saizarbitoria. Nolanahi ere, egileak argi utzi nahi izan zuen lan honetan ez dagoela inolako “itxurakeriarik”. Bere proposamenean ez omen zegoen “abangoardiako” edo “modernitaterako” inolako borondateirik: “Modu *beckettiar* batean idatzi banuen, izan zen neukan hura ezin nuelako beste modu batera kontatu”.

Autoreak berak aitortu zuenez, nobela hori ez da, gainera, gaztelaniara sekula itzuli, Saizarbitoriak berak hala nahi izan duelako: “Il-

sioa egiten dit, euskalduna ez den inork ezingo duela *Ene Jesus* irakurri”. Jarraian aipatu zuen, ez dakielako zergatik ez daukan “inolako interesik” gaztelaniaz argitaratzeko.

Eleberria argitaratu zen testuiguruari erreparatuz, artean Euskal Herria “azpigarapenean” bizi zela aipatu zuen Saizarbitoria. Gainera, euskara bera, “eraikitzeke” zegoen oraindik. “Askeagoak ginen”, gogoratu zuen, malenkoniaz. Hari horri tiraka esan zuen, beraiei ez zitzaieela burutik pasa euskaraz gaur adina idatziko zenik, nahiz eta gaur egun jende-masarentzat idazten den eta literatur sariak lortzeko borroka bizi deneko erreallitatea gogor kritikatuko luketen orduko egileek. “Idazlea ez zen sultana entretenitzeko ipuinak asmatzen zituen Sherazade. Benetako idazleak, Umberto Ecoek zituen irakurle kritikoak, kultuak eta jantziak

“Ilusioa egiten dit, euskalduna ez den inork ezingo duela ‘Ene Jesus’ irakurri”, esan zuen Saizarbitoria

nahi zituen, testuaren aurrean ahalgin bat egiteko prest zeudenak”, azaldu zuen.

Horixe baita, neurri batean, *Ene Jesus*, irakurleari ahalegina eskatzen dion liburu. Egileak azaldu zuenez, eleberririk familia du hizpide, batez ere “ama” eta “semea”. “Ama maitea, ama goxoaz, semearentzat onena nahi duen ama; semearen onagatik edozer egiteko prest dagoen ama sakrifikuatua, ama tristeaz. *Mater amabilis, mater admirabilis* eta baita *mater terribilis* ere. Senaraita gizajoa gaitz bezala nozitu duen ama; ama beti hor dagoena, aita ez bezala. *Aita semper absens, pater semper defunctus*”.

Nobelaren giltza Joxean Muñozen iritziz, ez da liburu “zaila, ezta erraza ere”, baina liburu horri “giltza” aurkitu behar omen zaio, eta berak horretarako bidea erraztu nahi izan omen du edizioaren hitzaurrean. Muñozek aitortu zuenez, bere garaietan *Ene Jesus* liburuak “markatu” egin zuen. “Garai hartako abangoardiako nobela da”, esan zuen, eta horrek ematen omen dio garaikidetasuna. ●